

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4666

50/2021 EBAZPENA, abuztuaren 18koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuaren (IRSE/EBI) arteko lankidetz hitzarmena, genero-indarkeriako delituen biktima diren emakumeei jarduera judizialan lagun egiteko proiektu pilotu bat garatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta dagokion publikitatea emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuaren (IRSE/EBI) arteko lankidetz hitzarmenaren testua, genero-indarkeriako delituen biktima diren emakumeei jarduera judizialan lagun egiteko proiektu pilotu bat garatzeko dena. Honen eranskinean dago jasota testu hori.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abuztuaren 18an.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2021eko irailaren 8a, asteazkena

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA
LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN
ABUZTUAREN 18KO 50/2021 EBAZPENARENA



**LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE
INSTITUTUAREN (IRSE/EBI) ARTEKOA, GENERO-INDARKERIAKO
DELITUEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI JARDUERA JUDIZIALETAN
LAGUN EGITEKO PROIEKTU PILOTU BAT GARATZEKO.**

Gasteizen, 2021eko ekainaren 30ean

HONAKO HAUEK BILDUDIRA

Alde batetik, Beatriz Artolazabal Albeniz, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, 2020ko irailaren 7ko 28/2020 Dekretuaren bidez izendatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 62.2 artikulua emandako eskumenaren arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 4.2.f artikuluari lotuta.

Bestetik, Juan Luis Fuentes Nogales jauna (NAN: 22.727.697-V), IRSE/EBI EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA (IFK: G- 48242259) erakundearen izenean eta hura ordezkatuz, 2015eko abenduaren 23an Javier Mota Pacheco Bilboko notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera (protokolo-zenbakia: 1096).

Alde batek nahiz besteak hitzartzeko eta erabakitzeko lege-ahalmen nahikoa aitortu diote elkarri, eta, lortu nahi den helburua betetzeko, lankidetzaz hitzarmen bat sinatzea erabaki dute. Horren harira, hauxe

A Z A L T Z E N D U T E

LEHENA. - Delituaren Biktimaren Estatutuak, apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez onartuak, aurreikusten du Gobernuak eta justiziaren arloko eskumenak beren gain hartu dituzten autonomia-erkidegoek biktimei laguntzeko zerbitzuak ematea.

BIGARRENA. - Apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 28.2.b) artikulua epaiketara lagun egitea jasotzen du babes premia bereziak dituzten biktimei eman dakizkiekeen laguntza-eta babes-neurrien artean, haien inguruabar bereziak baloratu ondoren.

2021eko irailaren 8a, asteazkena



HIRUGARRENA. - EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA elkarte (IRSE/EBI) genero-indarkeriaren biktimei jarduketa judizialean laguntza integrala emateko proiektu pilotu bat garatzen ari da. Proiektu hori 2019ko urriaren 1ean hasi zen Bilboko barruti judizialean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako tokietara zabaldu zen 2020ko bigarren seihilekoan.

LAUGARRENA. - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren iritziz, euskal gizartearentzat positiboa da adierazitako ezaugarriak dituen proiektu bat edukitzea, eta proiektu horri jarraipena emateko interesa agertzen du; izan ere, horrek genero-indarkeriako delituen biktimak babestea dakar, eta informazioa sendotzea ahalbidetzen du, Euskal Autonomia Erkidego osoa kontuan hartuta. Horrek guztiak aukera emango du egindako lanei jarraipena emateko, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak dituzten egoitza judizial guztietan proiektuaren iragazkortasuna eta onarpena testatu eta ondorioak/azken ebaluazioa izateko, eta, horrela, gai horri dagokionez, bere eskumen-eremuaren barruan egon daitezkeen politika publikoak zehazteko.

BOSGARRENA. - Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 27.2 artikulua xedatzen duenez, Justizia Ministerioak edo autonomia-erkidegoek lankidetzaz hitzarmenak egin ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuekin, legearen IV. tituluaren aipatzen diren laguntza- eta babes-zerbitzuak emateko.

SEIGARRENA. - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 14.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, Justizia Zuzendaritzari dagokio delituen biktimen eskubideak bermatzea eta sustatzea, Delituaren Biktimaren Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

ZAZPIGARRENA. - EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUA (IRSE/EBI) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatuta dago, AS/B/00657/1987 erregistro-zenbakiarekin, 1987ko irailaren 4an emandako ebazpenaren bidez.

Estatutuaren arabera, haren helburuetako bat da laguntza ematea delituen baten biktima izan diren pertsonen eta haien senide edo hurbilekoei, baldin eta delitu baten ondorio psikologikoak, fisikoak, ekonomikoak eta/edo sozialak zuzenean edo zeharka jasan badituzte eta arrisku potentzialean edo antzeko egoera batean badaude. Haren xedean artean dago, halaber, delitu bat jasan duen biktimari erantzun integral bat eskaintzea

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



(alderdi sozialak, juridikoak eta psikologikoak kontuan izanik), biktimak modu aktiboan parte har dezan; baina horrek guztiak biktimari ez dio ekarriko biktimizazio berririk, aitzitik, berriz erē indarra hartzen eta biktimizazioari amaiera ematen lagunduko dioten babesa eta baliabideak eskainiko zaizkio.

Biktimizazioaren ondorioak murriztera bideratutako jarduera guztiak egingo dira, bigarren mailako biktimizazioa saihestuta eta arreta pertsonalizatua indartuta. Eta prebentzioa errazten duten bide guztiak erabiliko dira, herritarrak eta kolektibo espezifikokoak kontzientziatuz.

Azaldutakoa dela bide, eta hizpide dugun arloko jarduketak arautzeko (formala eta edukia), sinatzaileek elkarrekin lankidetzan jardun nahi dutela adierazi dute, eta hauxe

ERABAKI DUTE

Hitzarmen hau sinatzea, genero-indarkeriako delituen biktima diren emakumeei jarduera judizialetan laguntza integrala emateko proiektu pilotu bat garatzeko, hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. - HELBURUA

Lankidetzaren hitzarmen honen xedea da 2021eko ekitaldian genero-indarkeriako delituen biktima diren emakumeei jarduera judizialetan laguntza integrala emango dien proiektu pilotu bat garatzeko lankidetzaren baldintzak arautzea.

BIGARRENA. - IZAERA JURIDIKOA

1.- Hitzarmen hau administratiboa da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo geratu da.

2.- Hitzarmen honen interpretaziotik, ondorioetatik edo suntsiarazpenetik sor daitezkeen kontu eztabaidagarrietarako, aldeek erabaki dute hitzarmen honetan araututako jarraipen-batzordeari kasu egitea, eta, adostasunik lortu ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatua betez.

Doctra & Asociados

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES



HIRUGARRENA. - PROIEKTU PILOTUAREN DESKRIBAPENA

1.- Helburuak.

1. Helburu orokorra eremu judizialean genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kolektiboari babes berezia ematea da. Genero-indarkeriaren definizioa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak emandako definizioaz harago ulertuta, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena) jasotzen duena da. Helburua, beraz, familia barruko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituetatik sortutako biktimizazioei estaldura ematea da, kolektibo esanguratsu eta espezifikoki berezia baita arreta berezia behar duten biktimen eta bereziki zaurgarrien kategoria generikoaren barruan, zigor-arloko prozesuan parte hartzea errazteko, bai eta haien eguneroko bizitza normalizatzeko eta bizitza normalizatuari ahalik eta lasterren ekiteko ere, beste edozein herritarrek bezala.
2. Helburu espezifikoa litzateke epaitegian deklarazioa eman behar duen biktimak hori ahalik eta ondoen egitea, estresa ahal den neurrian murriztuta, hainbat faktorek eragin bailezakete, hala nola ingurua ez ezagutzeak, epaiketetako jarduleek (epaileak, fiskalak, abokatuak, funtzionarioak eta abar), kaltegilea eta biktima eraikin berean edo inguruan egon daitekeela jakiteak, eta terminologia juridikoa ulertzeko zailtasunak.
3. Helburu horiek era honetako ekintzen bidez lortuko lirateke:
 1. Biktimari behar dituen tresnak ematea gertakariari aurre egiteko, hau da, prozesuari buruzko informazio zehatza eta pertsonalizatua.
 2. Antzeko beste epaiketa batzuetara joatea.
 3. Biktimaren eta ingurukoaren arteko komunikazioa erraztea.
 4. Itxaron beharreko denboran lagun egitea, eta, ezustekorik sortuz gero, konponbidea edo erantzuna ematea.
 5. Biktimarekiko irispidea kudeatzea, hau da, babes-neurriak ezartzea biktima erasotzailearekin, haren senideekin eta halakoekin ez elkartzeko.
 6. Biktimari lagundu ondoren beharrezkoak diren jarduerak egitea: Ahal den neurrian, bere egoera pertsonalaren jarraipen profesionalizatua egitea.
 - 7.- Ahal den neurrian, epaia betearazteko prozesu osoan lagun egitea.

2.- Biktimei laguntzeko faseak.

Lehenengo fasea: Biktimarekin:

1. Gertaera prestatzea: prozesua azaltzea, parte-hartzaile bakoitza nor den eta zergatik ari den, nola garatuko den...

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



2. Lagun egiteko modua erabakitzeko inguruabar berezi eta pertsonalak baloratzea: auzian pertsonatuta dagoen ala ez, gizarte-sareko laguntzarik ote duen, deklaraziorako babes-neurri berezirik nahi duen ala ez.

Bigarren fasea: Parte hartzen duten agenteekin:

1. Koordinazioa epaitegiarekin —jendearentzako sarreraz bestekoak, itxarongela berezia, agerraldiaren nondik-norakoak—, talde psikosozialekin, medikuekin, eta abar.

Hirugarren fasea: Fisikoki lagun egitea.

1. Itxaron-denboraren sozializazioa.
2. Salan lagun egitea, salak baimena emanaz gero, aurretiaz eskatuta.
3. Epaitegitik irteteen lagun egitea.

3.- Laguntza-programako oinarrizko esku-hartzeak

A) Komunak:

- 1.- Elkarrizketan, prozedura penala azaltzen zaio biktimari:
 - a. Prozesuaren izaera.
 - b. Prozesuaren faseak.
 - c. Prozesuaren zatiak.
 - d. Haren parte hartzea. (Akusazio partikularra, lekukoa...) horren ondorioak.
 - e. Formalitateak
 - f. Ekitaldiaren prestaketa "eszenikoa", aretoaren eskemekin, bisitekin, ahozko ikustaldiaren aurretik.
- 2.- Lagun egiteko eskaintza.
- 3.- Biktimari laguntzea lekuko babestu deklaratuia izateko eskaeran.
- 4.- Eskaerari erantzuten zaiola zaintzea.
- 5.- Epaitegiarekin aldeztu aurretik egiaztatzea behar diren bitartekoak daudela biktimak biktimagilearekin ikus-harremanik izan gabe deklaratzeko, horrela badagokio.
- 6.- Behar izanez gero, esku har dezaketean beste zerbitzu batzuekin koordinatzea (talde psikosoziala, auzitegiko medikua).
- 7.- Biktimarekin koordinatzea, ikustaldirako adierazitako ordua baino ordu erdi lehenago laguntza hasteko.
- 8.- Biktimari lagun egitea epaitegira eta deklarazioa egiteko deia jaso arte itxarongo duen lekukoaren gelara.
- 9.- Lekukoaren gelan lagun egitea, biktimari prozesuaren inguruko azalpen berriak emateko edo itxaronaldian gerta daitezkeen gorabeheretan laguntza eman ahal izateko. (eteteak, biktimagilearekiko (edo haren senideekiko) topaketak, antsietate-gertakariak...)
- 10.- Deklarazioa egin bitartean biktimari laguntzea, epaitegiak edo auzitegiak hala eskatzen duenean eta, biktimak eskatuta, haien ahalbidetzen dutenean.

Declaratario biktimari

2021eko irailaren 8a, asteazkena



11.- Epaitegietatik irtetea lagun egitea.

12.- Haurrak zaintzea gurasoek/arduradunek egoitza judizialean beharrezkoak diren izapideak egiten dituzten bitartean.

13.- Haur bakoitza entretenigarria eta hezigarria den jarduera batean integratzea: taldeko jolasak eta/edo banakako jarduerak.

14.- Adingabeari harrera egokia ematea, helduarentzako itxarote-esperientzia modu egoki, atsegin eta amultsuan bizi dezan. Inola ere ez du abandonu-bizipen bat izan behar.

15.- Adingabeak prozesu judizialean protagonista diren kasuetan (genero-indarkeria, sexu-abusuak, tratu txarrak, seme-alabei buruzko neurriak, etab.), beharrezkoak diren giza baliabideak izateko eta hitzezko eta gorputzeko azterketa egiteko aukera. Azterketa hori lagungarria izango da egoitza judizialean, dagozkion taldeek (talde psikosozialak eta auzitegi-balorazioko unitateak) miaketa egin dezaten.

16.- Lagun egin ondorengo esku-hartzeak:

- Egintza prozesal zehatzen azalpena (epaiak, errekurso posibleak, etab.)
- Inputatuaren edo kondenatuaren prozesu-aldaketen eta egoera pertsonalaren berri ematen dela egiaztatzea.
- Epaien eta ebazpen judizialen betetzearen jarraipena.
- Biktimaren erreferentzia izatea kontsultarik, zalantzarik edo behar espezifikorik izanez gero.

B) Biktimari lagun egitea aurrez eraturako probetan.

Protokoloa berdina da. Biktimak akusazio partikularrik ez duen kasuetan, epaitegiari alde aurretik eraturako froga fiskaltzaren bidez eskatzeko aukera aztertzea, biktimak deklarazio bat baino gehiago egin ez ditzan.

C) Fiskaltzak eta beste erakunde batzuek lagun egiteko eskaera:

Gero eta maizago, fiskaltzak biktimari lagun egiteko eskatzen du, horren beharra dagoela baloratzen dutenean. Hona hemen jarraitu beharreko protokoloa:

- 1.- Biktimarekin harremanetan jarri, telefonoz, eskatutako datuen arabera. Jakinarazpenak emaitzarik ez badu, datu berriak eskatu erakunde eskatzaileari.
- 2.- Biktimak edo haren legezko ordezkariak laguntza emateari uko egiten badio, erakunde eskatzaileari jakinarazi.
- 3.- Aurretiaz egiaztatu epaitegiarekin behar diren bitartekoak daudela biktimak biktimagilearekin kontaktu bisualik ez izateko.
- 4.- Fiskaltzak edo akusazio partikularrak eskatu ez badu, eta egokitzen jotzen den kasuetan, babes-neurriak eskatu ikustaldian zehar.
- 5.- Eskaera aintzat hartzen dela zaindu.
- 6.- Behar izanez gero, esku hartzen duten beste zerbitzuekin koordinatu. (Taldea psikosoziala, auzitegiko medikua).
- 7.- Biktimarekin koordinatu, ikustaldirako adierazitako ordua baino ordu erdi lehenago lagun egiten hasteko.

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



8.- Epaitegira lagun egin. Biktimak deklarazioa egiteko itxarongo duen lekuko en gelara lagun egin.

9.- Lekuko en gelan lagun egin, biktimak prozesuari buruz behar dituen azalpen berriak emateko edo itxaronaldian gerta daitezkeen gorabeheretan laguntzeko. (Eteak, biktimagilearekiko edo senideekiko topaketak, antsietate-gertakariak...)

10.- Biktimari lagundu deklarazioa egin bitartean, epaitegiak edo auzitegiak eskatzen duenean eta/edo programako profesionalak positiboki baloratzen dutenean.

11.- Epaitegietatik irtetea lagun egin.

12.- Ondorengo esku-hartzea: Egintza prozesal zehatzen azalpena (epaiak, errekurtsio posibleak, etab.)

13.- Laguntzaren emaitzaren berri eman fiskaltzari edo erakunde eskatzaileari.

14.- Inputatutako edo kondenatutako pertsonaren prozesu-aldaketan eta egoera pertsonalaren berri ematen dela egiaztatu.

Jakina, biktimizazio bat jasan duten pertsona guztiek, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak barne, ez dute lagun egitearen beharrik azken edo hirugarren fasean. Horren azalpena pertsonarengan eta haren inguruabar pertsonaletan datza: gizarte-trebetasunak, haren gizarte-sareren euskarria, erasotzailea ikusi nahi izatea eta hark ikus dezan nahi izatea ahalduzko-prozesuaren parte gisa, haren erresilientzia-gaitasun pertsonala...

Beste kasu batzuetan beharra partziala da: prozeduraren aurretiko orientazioa eta informazioa, lekuko babestu gisa onartzeko eskatzean laguntzea eta jarraipena egitea, itxarote-gelara lagun egitea, etab.

Beraz, guztiz beharrezkoa da baliabidearen/teknikaren erabilerari buruzko erabakia hartu aurretik balorazioa eta ebaluazioa egitea.

4.- Proiektu pilotua garatzeko baldintza operatiiboak:

Proiektu pilotua egiteko, entitateak gizarte-hezkuntzako edo gizarte-laneko profesional kopuru egokia izango du (esku-hartze sozialeko hitzarmenaren 2. taldea).

Arretarako ordutegia 09:00etatik 15:00etara izango da, eta entitateak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 mailari dagozkion euskara-ezagutzak dituzten langileen behar besteko kopurua izango du, proiektuaren hartzaileen aukerako hizkuntza ofizialean arreta bermatu ahal izateko.

LAUGARRENA.- "IRSE/EBI" EUSKADIKO BIRGIZARTERATZE INSTITUTUAREN BETEBEHARRAK

Euskadiko Birgizarteratze Institutuak betebeharrak hartzen ditu bere gain:

1.- Genero-indarkeriaren delituen biktima diren emakumeei jardura judizialean laguntza integrala emateko proiektu pilotua garatzea, hitzarmenaren hirugarren klausulan zehaztutako baldintzetan.

2021eko irailaren 8a, asteazkena



2.- Erantzukizun zibileko poliza bat izatea proiektua gauzatzera atxikitako pertsonak aseguratzeko, proiektu honen praktika profesionalak irauten duen bitartean. Proiektua gauzatzeko atxikitako pertsonekin dagoen lan harremanetik eratorritako betebeharrak Euskadiko Birgizarteratze Institutuaren erantzukizun eskusiboa izango dira.

3.- Diru-zuzkidura osoa hitzarmenaren xede diren gastuetarako erabiltzea.

4.- 2021eko urtarrilaren 1etik amaitu arte garatutako proiektuari buruzko laburpen-memoria aurkeztea Justizia Zuzendaritzari, hilabeteko epean, hitzarmenaren iraupen-epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bertan, egokitzat jotzen diren beste alderdi batzuk alde batera utzi gabe, honako alderdi hauek jaso beharko dira:

- Gauzatutako lagun egiteen xehetasuna, honako hauek zehaztuta: artatutako pertsonen kopurua eta inguruabar pertsonalak, lagun egiteak eragin dituzten delituen motak eta kopurua, lagun egiteei dagokien jarduketa mota, lagun egiteko erabilitako batez besteko denbora, gauzatutako lagun egiteen helmugako lekua, jasotako bideratzeen kopurua eta proiektu pilotuak jasotako bideratzeen jatorrizko instantziak.
- Proiektu pilotuaren garapenaren estatistika-laburpena.
- Proiektuaren emaitzen balorazioa.
- Proiektuan hitzarmenaren zuzkidura ekonomikoaren kargura egindako gastuaren justifikazioa, fakturen bidez edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuen bidez. Proiektu pilotuaren garapenari atxikitako langileei dagokien gastua justifikatzeko, proiektuak irauten duen aldiari dagozkion soldaten ordainagiriak eta langileen izen zerrenda eta kotizazioen likidazio-ordainagiria aurkeztuko dira.

BOSGARRENA. - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek bere gain hartzen du hirugarren klausulan deskribatutako proiektu pilotua garatzeak dakartzan gastuak ordaintzeko betebeharra, seigarren klausulan jasotako konpentsazio ekonomikoaren bidez.

SEIGARRENA. - KONPENTSAZIO EKONOMIKOA.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez, konpentsazio ekonomikoa emango dio Euskadiko Birgizarteratze Institutuari, bere gain hartutako obligazioengatik.

2.- Konpentsazio ekonomikoa 308.154,56 euro arte izango da 2021. urtean; 25.679,54 euro hilabete oso bakoitzeko.

Deatuza ftelecah

2021eko irailaren 8a, asteazkena



3.- Konpentsazio ekonomikoa honela ordainduko da:

Hitzarmena sinatzean, 2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko aldiari dagokion zati proportzionala ordainduko da, aldi horretan egindako gastuak justifikatu ondoren. Lehen ordainketa egiteko, langileen gastuaren justifikazioa aurkezteaz gain, proiektuaren garapenari atxikitako langileen zerrenda aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztuta, bai eta kualifikazio akademikoari eta euskararen ezagutza-mailari dagozkienak ere.

Hurrengo ordainketak hiruhileko epemugatuaren arabera konpentsatuko dira, gastua justifikatu ondoren.

Azken ordainketa egiteko, beharrezkoa izango da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak onartzea "IRSE/EBI" Euskadiko Birgizarteratze Institutuak aurkeztutako laburpen-memoria, zeinak nahitaez jasoko baitu 2021eko urtarrilaren 1etik hitzarmenaren iraunaldia amaitu arte egindako gastuen justifikazioa.

4.- Sortutako gastuak justifikatzeko, Euskadiko Birgizarteratze Institutuak, hitzarmenaren iraunaldia amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epea amaitu baino lehen, hitzarmen honen xede diren jardueren garapenak eragindako gastu guztien jatorrizko fakturak eta ordainagiriak igorri beharko dizkio Justizia Zuzendaritzari, hirugarren estipulazioko 4. zenbakian aurreikusitako memoria-laburpena ere bidaltzeaz gainera. Jatorrizko agiriak Administrazioaren esku geratzea ezinezkoa dela arrazoituz gero, jatorrizko agiriak eta kopiak aurkeztea eta jatorrizkoak interesdunari itzultzea erabaki daiteke, kopiak konpultsatu ondoren.

Langile onuradunei dagozkien gastuak justifikatzeko, eredu ofizialaren arabeko soldata-ordainagirien jatorrizko aleak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiri ofizialak aurkeztu beharko dira nahitaez.

5.- Justifikazio-betebeharrak klausula honetan ezarritako moduan ez betetzeak berekin ekar dezake justifikatu gabeko edo gaizki justifikatutako zenbatekoa itzultzeko betebeharra.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA BETETZEN DELA ZIURTATZEKO JARRAIPIEN ETA KONTROL ERREGIMENA

1.- Hitzarmen hau sinatutakoan, Jarraipen eta Kontrol Batzordea sortuko da, eta hitzarmenean ezarritakoa gauzatzeko koordinazioaz, kontrolaz, gainbegiratzeaz eta informazioaz arduratuko da.

2.- Akordioak, ahal bada, adostasunez hartuko dira; ezin bada, kideen gehiengoaren botoarekin eta, berdinketa badago, batzordeburuaren botoak erabakiko du.

Estela J. Arriola

2021eko irailaren 8a, asteazkena



3.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea alde sinatzaile bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute. Sinatu ondoren, alderdi bakoitzak bere lehen ordezkariak izendatuko ditu.

4.- Presidentea Justiziako zuzendaria izango da, edo, zuzendari hori kanpoan edo gaixorik badago, helduen justizia-zerbitzuko gizarte-gaietako arloko arduraduna, eta idazkaria, berriz, helduen justizia-zerbitzuko funtzionario bat, Justiziako zuzendariak izendatuta.

5.- Jarraipen eta Kontrol Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, Justizia Zuzendaritzaren ekimenez eta alderdi sinatzaileetako batek eskatzen duen aldi guztietan.

Landu beharreko gaiaren arabera, aholkulariak joan ahal izango dira batzordearen bileretara, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

6.- Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, nagusiki:

- a) Hitzarmen honen xede diren jarduketak eta betebeharrak gauzatu eta bete daitezen sustatzea. Hitzarmen honen xede diren jarduketak gauzatzea sustatzea eta aldeek beren betebeharrak betetzen dituztela zaintzea.
- b) Sinatzaileen arteko harremanak erraztuko dituzten koordinazio-mekanismoak ezartzea.
- c) Egoki irizitako hobekuntzak proposatzea, hitzarmen honen xedea hobeto bete dadin.
- d) Hitzarmenaren indarraldian zalantzarik, hutsunerik edo kontu arazotsurik sortuz gero, interpretatzea, eta, hala egokituz gero, argitzea.

ZORTZIGARRENA.- ELKARREKIKOTASUNA, LANKIDETZA ETA PUBLIZITATEA

1.- Alde sinatzaileek hitzarmenari lotutako alderdi guztietan modu aktiboan lankidetzan aritzeko elkarrekiko konpromisoa hartzen dute; hala, eskura duten informazio, ezagutza eta esperientzia guztia elkar trukatu dute, hitzarmenaren helburua ahalik eta ongien betetzeko eta baliabideak unean uneko beharretara egokitzeke.

2.- Euskadiko Birgizarteratze Institutuak erabili eta baliatu ahal izango du hitzarmenaren xede den esparruko azterlan edo ikerlanen eta baliabideen kudeaketan izandako esperientzian lortutako informazioa, aurretik Justizia Zuzendaritzaren baimena lortuta.

BEDERATZIGARRENA. - KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

1.- Konfidentzialtasuna.

Euskadiko Birgizarteratze Institutuak proiektu pilotua garatzeko eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da, eta sekretu profesionalaren betebeharraren mende dago, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Hori dela-eta, isilpean gorde beharko da, eta

2021eko irailaren 8a, asteazkena



ez zaio inola ere emango, osorik edo zati batean, hitzarmenaren parte ez den pertsona fisiko edo juridiko bati, Justizia Zuzendaritzaren alde aurreko baimena izan ezean.

Aipatutako pertsona fisiko edo juridikoren batek konfidentzialtasun-eginbehar hori eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren eginbeharra urratuz gero, aplika dakioken araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galeren ordainketa eskatuko zaizkio. Hitzarmen-harremana amaitu ondoren ere bete beharko dira eginbehar horiek.

Nolanahi ere, datu pertsonalak tratatzea berekin ez dakarten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta sekretupean gorde beharko dira jakin ahal diren datuak.

2.- Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertzen da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak erkatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Horren ondorioz, Euskadiko Birgizarteratze Institutuak tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, eta unean unean indarrean dagoen araudia bete beharko du, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz.

Baldin eta tratamendu-eragileak beste helbururen batekin erabiliko balitu datuak, edo hitzarmen honetan edo indarrean den araudian ezarrita dagoena bete gabe jakinarazi edo erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduraduntzat hartuko litzateke tratamenduaren arduraduna ere, eta pertsonalki egindako arau-hausteen erantzule izango da.

2. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) zehatz dago deskribatuta zer datu pertsonal babestu behar den, bai eta tratamendu-eragileak zer tratamendu egin eta zer neurri ezarri behar dituen.

Baldin eta, hitzarmenaren betearazpenaren ondorioz, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko 2. eranskinean ezarritakoa aldatu behar izango balitz momenturen batean, arrazoiak emanda eskatu beharko du tratamendu-eragileak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Tratamenduaren arduraduna ados egongo balitz eskatutakoarekin, 2 eranskin eguneratu bat egingo du, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izenburuarekin, eta bertan zehatz bildu beharko da egin behar den tratamendua.

3.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak.

Klausula honetako betebeharrak eta hitzarmen honetako «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko 2. eranskina dira tratamenduaren enkargu-kontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta tratamendu-eragilearen artekoa, Datu

Declaración de confidencialidad

2021eko irailaren 8a, asteazkena



pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean DBEO) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Obligazio horiek betetzeko egin beharreko prestazioak ez dira ordainduko hitzarmen honetan aurreikusitakoaz beste modu batean, eta hitzarmen honen iraupen bera izango dute. Hala ere, hitzarmenaren indarraldia amaituta sekretu-betebeharrak indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, hitzarmenaren xede den proiektu pilotuaren garapenean inplikaturako pertsona guztientzat.

Kontratu honen objektua betetzeko, ez da beharrezkoa izango tratamendu-eragileak tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizun den beste datu pertsonal batzuetarako irispiderik izatea; horrenbestez, ez du baimenik izango «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko 2. eranskinean zehaztuta ez dauden beste datu pertsonal batzuetarako irispidea izan edo tratatzeko.

Hitzarmenaren xede den proiektu pilotua garatu bitartean gorabeheraren bat gertatzen bada, eta, horren ondorioz, norbait tratamenduaren ardura duen organoaren ardurapeko datu pertsonaletara (2. eranskinean, "Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua", jasota ez daudenak) sartzen bada, tratamendu-eragileak horren berri eman beharko dio tratamenduaren ardura duen organoari, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta lasterren eta, gehienez ere, 72 orduko epean.

Tratamendu-eragileak honako betebeharrak bete beharko ditu eta betetzen direla bermatuko du, 2. eranskinean ("Datu pertsonalen tratamendurako enkargua") zehaztutakoarekin osatuta, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

- a) Datu pertsonalak proiektu pilotuaren garapenari aplikatu dakizkiokkeen eta hitzarmen honetan dokumentatuta dauden jarraibideen arabera tratatzea, bai eta, hala badagokio, tratamenduaren arduradunak unean-unean idatziz ematen dizkion jarraibideen arabera ere.
Tratamendu-eragileak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari baldin eta, bere ustez, jarraibideren bat ez badator bat unean-unean aplikatu behar den datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin.
- b) Datu pertsonalak ez ditu erabili edo aplikatuko hitzarmenaren xedea garatzea ez den beste ezein helbururekin.
- c) Segurtasun-irizpideei eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz tratatuko ditu datu pertsonalak; era berean, eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu.
Zehazki, eta mugatzailea izango ez bada ere, behartuta egongo da eranskin honetako 2. eranskinean (Datu pertsonalen tratamendurako

Declarat. A. I. de la Oca

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



enkargua) zehaztutako arrisku- eta segurtasun-maila babesteko neurriak aplikatzera.

- d) Erabateko konfidentzialtasuna mantentzea hitzarmenaren xede den proiektua garatzeko eskura izango dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datuen tratamendutik eskuratuko ditueni buruz ere, datuok edozein euskarritan jaso dituela ere. Betebehar hori izango du, halaber, tratamendu-eragileak eskatuta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen pertsona orok. Tratamendu-eragileak sekretu-eginbehar hori dutela jakinaraziko die haren mende dauden pertsonen, eta betebehar horri eutsi beharko diotela zerbitzua ematen amaitu ondoren edo harremana eten ondoren ere.
- e) Hitzarmen honen xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat egitea, eta bermatzea pertsona horiek konpromisoa hartu dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko, zeinen berri eman beharko baitzaie, modu egokian eman ere. Gainera, tratamenduaren arduradunak eskura izango ditu egiaztagiri horiek.
- f) Ziurtatzea datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza emango diela datuok tratatzeko baimena duten pertsonen.
- g) Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei komunikatuko (emango) edo zabalduko, ezta kontserbatzeko ere; salbuespena izango da tratamenduaren arduradun den organoaren aurretiazko eta beren-beregiko baimena izaten bada kasu bakoitzean.
- h) Datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada edo borondatez hala erabakitzen bada, eta izendapen horren berri eman beharko dio tratamenduaren arduradunari, baita datu pertsonalak babesteko tratamendu-eragileak ordezkari gisa izendatu d(itu)en pertsona fisikoa(k) nor d(ir)en eta harekin/haiekin harremanetan ipintzeko datuak ere (tratamendu-eragilearen ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia betetzeko arduraduna(k) izango d(ir)ela alderdi legal, formal eta segurtasunekoetan.
- i) Eskuratu dituen datu pertsonalak, tratamendu-eragileak tratamenduaren ondorioz sortutako datuak eta datu horien euskarriak eta dokumentuak itzultzea edo suntsitzea, 2. eranskinean (Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua) jasotako tratamenduaren organo arduradunaren aukeran, hitzarmen honen xede den proiektu pilotua amaitu ondoren. Ezin izango dira suntsitu baldin eta legez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arauen baten ondorioz kontserbatzeko baimena edo agindua ematen bada.

Hala ere, tratamendu-eragileak datu pertsonalak gorde ahal izango ditu tratamenduaren arduradunaren organoarekin duen harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen bitartean; kasu horretan, blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko ditu, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu epe horren amaieran.

Declaro fidedigna

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



- j) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko 2. eranskinean zehaztu diren tratamenduaren sistema eta gailuetan (eskuzkoak zein automatizatuak) eta lekuetan egin beharko du datu pertsonalen tratamendua. Ekipamendu hori kontrolpean izan ahal izango dute tratamenduaren ardura duen organoak edo tratamenduaren arduradunak, zuzenean edo zeharka, edo, bestela, tratamenduaren ardura duen organoak aldeztu aurretik eta idatziz berariaz baimendu dituen beste batzuek, aipatutako eranskinean ezartzen denaren arabera, eta hitzarmenaren xede den proiektu pilotua gauzatzeko izendatutako erabiltzaileek edo haien profilek soilik.
- k) Datu pertsonalak Europako Ekonomia Esparruan edo aplikatzekoa den araudiak segurtasun-eremu baliokidetzat jotzen duen beste eremu batean tratatzea, eta eremu horretatik kanpo ez tratatzea, ez zuzenean ez baimendutako azpikontratisten bidez, hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera, salbu eta horretara behartuta badago Europar Batasuneko edo dagokion estatu kideko zuzenbidearen arabera, 2. eranskinean ("Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua") beste zerbait adierazten bada, edo berariaz horrela agintzen badu tratamenduaren ardura duen organoak. Baldin eta zuzenbide nazionalaren ondorioz edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz tratamendu-eragileak nahitaez egin behar badu nazioarteko datu-transferentziaren bat, idatziz emango dio tratamenduaren organo arduradunari legezko betebeharrak horren berri tratamendua egin baino lehen (behar besteko aurrerapenez), eta bermatu egingo du tratamenduaren organo arduradunari aplikatu behar zaizkion legezko betekizun guztiak beteko direla, baldin eta aplikatu beharreko zuzenbideak debekatzen ez badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuen ondorioz.
- l) Berehala, beranduenez 72 orduko epean, tratamenduaren organo arduradunari hauen berri ematea: bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasunean izandako edozein urraketa eta gertakariaren dokumentaziorako eta jakinarazpenerako garrantzitsua den informazio guztia; izan duen edo izan zezakeen informazioa tratatu eta kudeatzeko sisteman izandako edozein hutsegite, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna arriskuan jarri badu; hitzarmenaren xede den proiektu pilotua gauzatzean lortutako datuak eta informazioa hirugarren pertsonen jakinaraztearen ondorioz konfidentzialtasunean izan zitekeen edozein urraketa, konfidentzialtasunaren galera nozitu duten interesdunak zein diren zehaztuta ere; hori guztia, DBEOren 33. artikulua betez.
- m) Ahalik eta lasterren jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari interesdunen batek dagokion eskubideren bat erabiltzen badu bere aurrean (datuak irispidean izateko eskubidea, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, datuen aurka egiteko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko eskubidea eta datu pertsonalen eramangarritasun-eskubidea;

Deatur & Alarcos

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako beste edozein eskubide; edo erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea).

Jakinarazpena berehala egin behar da, inola ere ez eskubidea baliatzeko eskaera jaso eta hurrengo laneguna baino geroago, eskubidea nork baliatzen duen adieraziko da bertan, modu fede-emailean, eta, hala badagokio, eskaera ebatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen dokumentazioa eta beste informazioak erantsiko zaizkio.

Ahal den guztietan, laguntza emango dio tratamenduaren ardura duen organoari, dagokiona bete eta eskubidea erabiltzen duen pertsonari erantzun ahal izateko.

- n) Tratamenduaren ardura duen organoarekin batera egingo du lan segurtasun-neurrien arloan dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiaturakoak) agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko eta datu pertsonalen babesaren eta horri buruz agintaritza eskudunei egindako aurretiko kontsulten eragin-ebaluazioak egiteko, eskura duen informazioa eta tratamenduaren izaera kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaren ardura duen organoaren esku ipiniko du, hala eskatzen dionean, hitzarmen honetan eta gainerakoetan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatze behar den informazio guztia, eta lankidetzan arituko da tratamenduaren ardura duen organoak, hala badagokio, egingo dituen auditoretza eta ikuskapenetan.

- o) Idatziz eraman beharko du, baita formatu elektronikoa eta DBEOren 30.5 artikuluan islatutako kasuetan ere, tratamenduaren ardura duen organoak egin dituen tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, eta DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak agertu beharko dira gutxienez bertan.
- p) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen duela egiaztatzen duten ebidentziak izatea — esaterako betetze-mailaren edo auditoretzen emaitzen aurretiko ziurtagiriak—, eta tratamenduaren organo arduradunaren esku ipini, hala eskatzen dizkionean. Halaber, hitzarmena indarrean egon bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du unean-unean egindako informazio, ziurtapen eta auditoretza oro.
- q) Egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dio tratamenduaren ardura duen organoari, biltzeko unean. Datuak biltzen hasi baino lehen, tratamenduaren ardura duen organoarekin adostu beharko da nola idatziko den eta zein formatutan emango den informazioa.

Yacine A. Alkazar

2021eko irailaren 8a, asteazkena



HAMARGARRENA. - HITZARMENA ALDATZEKO ARAUBIDEA.

Hitzarmen hau alderdien ahobatezko akordioz alda daiteke.

HAMAIKAGARRENA. - HITZARMENA AZKENTZEA.

1.- Hitzarmena azkendu egingo da haren xedea betetzeko jarduerak bete ondoren, edo suntsiarazteko arrazoiren bat egonez gero:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.
- c) Sinatzaileetakoren batek ez betetzea bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak.

Horrelako kasuetan, edozein alde jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen aldeari errekerimendu bat, epe jakin batean bete ditzan bete gabetzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori hitzarmenaren egikaritzearen jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei komunikatuko zaie.

Errekerimendu edo eskaeran adierazitako epea igarota ez-betetzeak jarraitzen bada, hura bidali zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoi bat dagoela, eta, beraz, suntsituzat joko da hitzarmena. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsiarazten bada, gerta daiteke sortutako galerak ordaindu behar izatea, hala aurreikusitako bada.

d) Epaileak hitzarmena deuseztatzeko erabakia hartzea.

e) Esku hartzen duen alderdiren batek berariaz salatzen bada, indarraldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago.

HAMABIGARRENA. - INDARRALDIA

Hitzarmen hau bi alderdiek sinatzen dutenean jarriko da indarrean, eta 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean izango ditu ondorioak alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzeko. Nolanahi ere, alde aurretik azkendu ahal izango da, aurreko klausulan adierazitako arrazoiengatik.

Joseba Iñiguez

2021eko irailaren 8a, asteazkena



Eta, aipaturiko guztiarekin ados daudela erakusteko, hitzarmen honen jatorrizko bi ale, balio berberekoak, sinatzen dituzte, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

Eta, aipaturiko guztiarekin ados daudela erakusteko, hitzarmen honen jatorrizko bi ale, balio berberekoak, sinatu dituzte, goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

**JUSTIZIA, BERDINTASUN ETA
GIZARTE POLITIKETAKO
SAILBURUA**

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

**EUSKADIKO
BIRGIZARTERATZE
INSTITUTUA**

CIF: G48242259
www.irse-ebi.org / T. 94 479 23 16

JUAN LUIS FUENTES NOGALES

2021eko irailaren 8a, asteazkena



1. ERANSKINA.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

1. **Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak:** Justizia Zuzendaritza; harekin harremanetan jartzeko, erabili posta-helbidea (Donostia kalea 1, – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoa (945019091).
2. **Datuak babesteko ordezkaria eta harremanetarako datuak:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko, erabili posta-helbidea (Donostia kalea 1, – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoa (945018680). Web orria (www.euskadi.eus/datu-babesa)
3. **Tratamenduaren helburua:** lankidetzeta-hitzarmenaren fase guztiak kudeatzea, betearazpena, aldaketak, hitzartutako konpentsazio ekonomikoaren ordainketa eta azkentzea barne.
4. **Kontserbazio-epea:** zein helburutarako jaso diren, hori betetzeko beharrezkoa den denbora.
5. **Legitimazioa:** tratamendua beharrezkoa da hitzarmenaren xede den proiektu pilotua garatzeko, interesduna hitzarmen horren alderdi baita. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko egiten da (2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena).
6. **Hartzaileak:** Interes legitimoa dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari eman ahal izango zaizkie datu pertsonalak.
7. **Eskubideak erabiltzea:** Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek eskubide hauek egikari ditzake:
 - a) **Irispidea izatea:** eskubidea izango du tratamenduaren organo arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egiten ari den ala ez, eta, hala bada, datu pertsonaletara irispidea izateko eskubidea izango du.
 - b) **Zuzentzea:** berari buruzko datu pertsonal ez-zehatzak zuzentzeko eta datu pertsonal osatugabeak osatzeko eskubidea, baita adierazpen gehigarri baten bidez ere.
 - c) **Ezabatzea (ahaztua izateko eskubidea):** berari buruzko datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, honako egoeraren bat tartean denean:
 1. datu pertsonalak jadanik ez direnean beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan;
 2. interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena erretiratu badu, eta tratamenduak ez badu beste oinarri juridikorik;
 3. interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, eta tratamendurako beste arrazoi legitimorik gailentzen ez bada;
 4. datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada;
 5. datu pertsonalak lege-betebehar bat betetzeko ezabatu behar badira;

Deitu & Hecch



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



6. datu pertsonalak jaso badira (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 8.1 artikuluan aipaturiko “informazioaren gizarteko” zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian.
 7. Berari buruzko datu pertsonaletarako edozein lotura ezabatzeko eskubidea, datu horiek ezabatzeko betebeharra badago.
- d) **Mugatzea:** berari buruzko datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea, honako kasu hauetan:
1. datu pertsonalen zehaztasunaren aurka egin bada, tratamenduaren organo arduradunak datuon zehaztasuna egiaztatzeke adinako epe batez;
 2. tratamendua legez kontrakoa bada eta interesdunak datu pertsonalak ezereztearen aurka egin badu eta, ordainetan, haien erabilera mugatzeko eskatu;
 3. organo arduradunak jadanik behar ez baditu datu pertsonalak tratamenduaren helburuei begira, baina interesdunak bai, erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko;
 4. interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, organo arduradunaren arrazoi legitimoak interesdunaren gainetik dauden ala ez egiaztatzen den bitartean.
- e) **Aurka egitea:** interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, tratamenduaren arduradunari galarazteko berari buruzko datu pertsonalen tratamendua egitea, tratamendua beharrezkoa bada ere interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko edo ahal publikoak erabiltzeko edo hirugarrenen interes legitimoak babesteko, baita profilak egiteko ere:
1. tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, non eta ez duen egiaztatzen interesdunaren interes, eskubide eta askatasunen gainetik arrazoi larriak daudela edo datuok beharrezkoak direla erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.
 2. datuen tratamenduaren helburua bada ikerketa zientifikoa, historikoa edo estatistikoa, interesdunak eskubidea izango du, bere egoera partikularra dela-eta, edozein unetan, berari buruzko datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko, salbu eta tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
- f) **Tratamendu automatizatua:** tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten objektu ez izateko eskubidea, profilak egitea barne, baldin eta datu pertsonalak jaso zaizkion pertsonarengan ondorio juridikoak eragiten baditu edo antzeko moduan nabarmen eragiten badio.

8. Datu pertsonalen babesari buruzko informazio xehea, hemen:

- a) Gure web orria (www.euskadi.eus/datu-babesa)
- b) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB) 2016/679 (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

2021eko irailaren 8a, asteazkena



- c) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
(<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con>).

Jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek aipatu diren eskubideak egikaritu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunaren aurrean.

Bestalde, jasotako datu pertsonalak nori buruzkoak diren, pertsona horrek datuak babesteko ordezkarirengana jo dezake, tratamenduaren organo arduradunaren aurka edo tratamendu-eragilearen aurka Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri aurretik, hala xedatuta baitago Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 37.1 artikuluan.

Beate & J. J. J. J.

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



2. ERANSKINA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA ENKARGATZEA

1.- Egin behar den datu pertsonalen tratamenduari buruzko deskribapen orokorra

Deskribapena:

Datu pertsonalen tratamendua, genero-indarkeriako delituen biktima diren emakumeei jarduera judizialean laguntza integrala emateko proiektu pilotuaren barruan, delituen biktima izan diren pertsonen buruzko datuak biltzean eta tratatzean datza.

Tratamendu-eragileak atxikitako langileek datu pertsonalak tratatu ahal izango dituzte hitzarmenaren xede den proiektu pilotuan ezarritako zerbitzuak emateko. Atxikitako langileek soilik tratatuko dituzte datu pertsonalak, eta hitzarmenaren xede den proiektu pilotua garatzeko helburuarekin soilik.

Baldin eta, hitzarmenaren xede den proiektu pilotuaren betearazpenaren ondorioz, eranskin honetan ezarritakoa noizbait aldatu behar izango balitz, arrazoiak emanda eskatu beharko du hori tratamendu-eragileak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Administrazio publiko hau ados badago eskatu zaizkion aldaketekin, eranskin eguneratu bat egingo du, eta bertan zehatz bildu beharko da datu pertsonalen inguruan egin behar den tratamendua.

2.- Taldeak eta tratatutako datu pertsonalak

Interesdunen talde hauetarako eta tratatutako datu pertsonal hauetarako irispidea izango du tratamendu-eragileak:

Tratamenduak eta interesdunen talde nagusiak	Tratamenduaren datu pertsonal hauetarako irispidea eskuratu ahal izango da ¹
1. tratamendua: delituen zuzeneko biktima artatuen datuak	<ul style="list-style-type: none"> - Nortasun Agiri Nazionala: NAN/IFK, AIZ edo pasaportea - Izen-abizenak - Sexua - Jaiotze-data - Harremanetarako hizkuntza - Nazionalitatea - Zuzendaritza - Telefono-zk.

¹ Zerrenda irekia da, adibide gisa emana. Pertsonen eskatzen zaizkien datu pertsonalak zehaztu behar dira, erabiliko den datu pertsonalen tratamenduaren arabera.

2021eko irailaren 8a, asteazkena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOBERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILADEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

	<ul style="list-style-type: none"> - Helbide elektronikoa - Sinadura - Egoera zibila/egoera parekatua - Zer delitu-motaren biktima den - Hala badagokio, proiektu pilotura zer instantziak bideratu duen - Hala badagokio, desgaitasuna - Hala badagokio, delituaren ustezko egilearekiko mendetasun-harremana
2. tratamendua: delituen zeharkako biktima artatuen datuak (delitu batek zuzenean eragindako pertsona baten heriotzaren edo desagerpenaren kasuetan)	<ul style="list-style-type: none"> - NAN/IFK, AIZ edo pasaportea - Izen-abizenak - Zuzeneko biktimarekiko lotura mota, abenduaren 11ko 1109/2015 Errege Dekretuaren 13.1 artikulua araberak. - Sexua - Jaiotze-data - Harremanetarako hizkuntza - Nazionalitatea - Zuzendaritza - Telefono-zk. - Helbide elektronikoa - Sinadura - Egoera zibila/egoera parekatua - Zer delitu motaren biktima den - Hala badagokio, proiektu pilotura zer instantziak bideratu duen - Hala badagokio, desgaitasuna - Hala badagokio, delituaren ustezko egilearekiko mendetasun-harremana

3.- Datu pertsonalen tratamenduaren elementuakDatu pertsonalen tratamenduak hauek hartuko ditu: *(markatu dagokiona)*

- Bilketa/Erregistroa
- Sailkapena/Egituraketa
- Kontserbazioa/Segurtasun-kopia
- Aldaketa
- Erauzketa
- Kontsulta

2021eko irailaren 8a, asteazkena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



- Komunikazioa/Transmisioa
- Mugatzea
- Ezabatzea/Ezereztea/ahaztua izateko eskubidea
- Kopiak suntsitzea
- Segurtasun-kopiak berreskuratzea

4.- Lankidetzeta-hitzarmenaren indarraldia amaitzean datu pertsonalak edukitzea

Hitzarmenaren indarraldia amaitutakoan, tratamendu-eragileak hau egin behar du:

- a) Tratamenduaren ardura duen organoari datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak, itzuli, prestazioa ematen amaitu ostean. Itzultzeaz gain, tratamendu-eragileak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere, tratamendu-eragileak kopia bat kontserbatu ahal izango du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta, garatutako proiektu pilotuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.

5.- Segurtasun-neurriak

Datuen tratamenduei aplikatuko zaizkie Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan maila bateko informazio-sistema baterako aurreikusitako segurtasun-neurri berberak (*hautatu hiru aukeretako bat*):

- Baxua
- Ertaina
- Altua

Estela Irizar

2021eko irailaren 8a, asteazkena



Tratamenduaren eragileak ezin izango ditu neurri horiek ezarri gabe utzi, ezta ezabatu ere, ingurumenaren arrisku edo ebaluazioari buruzko azterketa bat erabiliz, ez bada Administrazio publiko honek horretarako berariazko baimena eman diola.

Horretarako, Administrazio publiko honek ezarritako segurtasun-neurriak bete beharko dituzte tratamendu-eragilearen langileek, eta ezin izango dute egin Administrazio publiko honek definitu ez duen datu pertsonalen tratamendurik.

Gazteizen, 2021eko ekainaren 30ean.

Tratamenduaren arduradunaren izenean



Eugenio Artetxe Palomar
Justiziako zuzendaria

Tratamendu-eragilearen izenean



Juan Luis Fuentes Nogales
Euskadiko Birgizarteratze Institutua